

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapen departamentuak Santa Lucía-Adsis fundazioari lagatako etxebizitzetan datorren astean hasiko da jendea sartzen

Kontseilariak etxebizitzetako bat bisitatu du, eta pisu horiek adinez nagusi bihurtutako adingabekoen zentroetatik etorritako gazteak hartuko dituzte

Viernes, 14 de febrero de 2014

Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui Ortigosa-k Santa Lucía fundazioari lagatako lau etxebizitzetatik bat bisitatu du gaur eguerdian. Haietan, datorren astelehenetik aurrera, hiru gazte bizitzen jarriko dira, eta haien atzetik beste pertsona batzuk joango dira, gainerako pisuak birgaitzeko obrak amaitu ahala.

2013ko azaroaren 11n Navarra de Suelo y Vivienda (Nasuvinsa) enpresa publikoak Santa Lucía-Adsis fundazioarekin etxebizitzetan prekariozko lagapeneko lau kontratu sinatu zituen okupatu aurretik aurrez berritze-lanak behar zituztenak. Fundazioak ez du ezer ordaintzen alokairuagatik, eta konpontzeko nahiz komunitateko gastuak, hornidurak eta IBla ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Lau etxebizitzak "Emantzipazio Prozesurako Laguntza" proiekturako dira; haren helburua adingabekoen zentroetatik datozen gazte nafarrei ostatu ematea da, irteten dutenean, adinez nagusiak direnean, helduen bizitzarako trantsizio-aldi horretan laguntza eman diezaieketen familia edo adiskideen harreman-euskarririk ez dutenak. Bizpahiru urteko egonaldia dira eta gazteekin batera Santa Lucía-Adsis fundazioako teknikari bat dago laguntza emateko.

Nasuvinsak lagatako etxebizitza horiek bigarren eskukoak dira eta 62 nahiz 81 metro koadro artekoak dira. Indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen bizitzeko baldintzak dituzte eta bizigarritasun-zedula nahiz eraginkortasun energetikoko ziurtagiria dituzte.

Kontratuan zehazten da Santa Lucía fundazioari hamar urterako lagako zaiola, eta trukean berritzeko lanak egingo dituela. Epe hori igarota, kontratua urtero luzatu ahalko da eta, gehienez ere, bost urtera arte. Ondoren, Santa Lucía-Adsis fundazioak Nasuvinsari itzuli beharko dio etxebizitza baldintza egokietan alokairu edo salerosketako merkatuan



Zarraluqui kontseilaria Santa Lucía fundazioko ordezkari batekin.

jartzeko.

Fundazioa arduratuko da uraren, gasaren eta elektrizitatearen hornidura eta kontsumoko gastuez, lurraren kontribuzioa ordaintzeaz, etxebizitzaren komunitateko eta beste antzeko batzuk ordaintzeaz lagapen-kontratua indarrean jarraitzen duen bitartean.

Berritzeko obrak

Etxebizitzaren obretan instalazio elektrikoa berrituko da, berogailuko eta etxekeko ur beroaren galdara ordeztuko eta instalazioa nahiz erradiadoreak prestatuko dira.

Gainera, lanen barnean sartuko dira, hiru etxebizitzetako iturgintza eta saneamenduko instalazio guztia berritzea, eta bainugela nahiz sukaldea osorik aldatzea. Eta, azkenik, lau etxebizitzetatik bitan behintzat parketa eta leihoak konpondu edo ordeztuko dira. Haietan guztietan, hormak eta sabaiak pintatuko dira.

Adsis Komunitateen Mugimenduak sustatutako Gobernu kanpoko Erakundea 1996. urtetik egiten du lan pobretutako pertsona eta taldeen sustapen integralerako. Boluntarioak diren 700 pertsonak baino gehiagok eta kontratatutako 250 pertsona inguruk osatzen dute. [Adsis fundazioa](#) urtero 13.000 pertsonari erantzuten zaie Espainiako 12 probintzietako zortzi jarduera-programen bidez. Lan hori pertsona, enpresa eta erakunde publiko eta pribatuen laguntzarekin egiten da, banakako garapen-prozesuen bidez hurbileko harremanean, aholkularitzan eta zerbitzu eraginkorrean oinarrituta daudenak.